

Defentsak absoluzioa eskatu du Alkatearentzat, eta Fiskalak haren aurkako sententzia onartzea

Auzitegi Nazionalak urtebeteko kartzela zigorra eta zazpi urteko inhabilitazioarekin epaitu zuen Beitialarrangoitia alkatea eta epaiaren aurka helegitea jarri zuen defentsak. Auzitegi Gorenean helegitearen argumentuak aztertu ziren herenegun.

MARIAN Beitialarrangoitia alkateari urtebeteko kartzela zigorra eta zazpi urteko inhabilitazioa ezarri zizkion Auzitegi Nazionalak, joan den ekainean, 2008an Iruñeko Anaitasunan, EAE-ANVren ekitaldi politiko batean egindako adierazpenengatik. Alkatearen defentsak helegitea jarri zuen epai horren aurrean, eta herenegun, Auzitegi Gorenean, helegitearen argumentuak aztertu zituzten. Defentsak absoluzioa eskatu zuen eta fiskalak Auzitegi Nazionalak emandako epaia onartzea. II

❖ KALEZ KALE KANTARI Egunkaria Egunarekin bat eginda, gaur saioa

Kalez Kale Kantariaren saioa izango da gaur 12:00etan Plaza Berritik abiatuta. Egunkaria Egunarekin bat egingo dute; izan ere, Egunkaria itxi zutela 7 urte beteko dira eta ekitaldia izango da Plazan. /3

❖ ATXILOKETAK Astelehenean atxilotutako hiru hernaniarrak espetera

Astelehenean atxilotutako hiru hernaniarrak eta segurarra atzo pasa ziren epailearen aurretik eta epaileak espeteratzeko agindua eman zuen. AAMk jakinarazi zuen, atxilotutako bat, Jose Camacho hernaniarra, ospitalera eraman zutela. /2

❖ PRENTSA DHARRAK Atez Atekoaren gainean idatzi bana bidali dute EAJ- PNVk eta PSE-EEK

Atez Atekoaren gainean zenbait informe eskatu ditu EAJ-PNVk eta PSE-EEK kezka azaldu ditu enpresa publikoa dela eta. /2

GAUR KRONIKAN

Jasota bezala /2

Langile ikastola: itxialdia eta manifestazioa /3

KIROLAK: Errugbia, futbola, igeriketa, pelota... /6-7

Eskelak /7

Atez Atekoa: bideo labur lehiaketa /8



Prest daude tatamiak

INFANTIL mailako Gipuzkoako Judo Txapelketa jokatu da gaur Hernaniko kiroldegian. Gipuzkoa osoko ehun judoka inguruk hartuko dute parte. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da txapelketa eta ondoren, Alebinen txanda izango da. Maiatzean beraien mailako lurraldekako Txapelketa jokatu dute eta gaur, txapelketa horretan parte hartzeko txartelaren bila lehiatuko dira. /6

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -



Telefonikako banatzaile ofiziala

ADSL ESKAINTZA

DUO 10 Mb

12 kuota 19,9€

DUO
ALTA
DOAN

MRI*
BARNE

12 hilabeteko konpromezua
eta orain PACK MOVISTAR opari

TRIO FAMILIARRA 6 Mb

12 kuota 34,9€

ALTA + MRI
+ INSTALAZIOA
DOAN

MRI: modem, router, wifi

TRIO FAMILIARRE 10Mb

12 kuota 34,9€

ALTA + MRI
+ INSTALAZIOA
DOAN

Promozio epea otsailaren 7a.

❖ EAJ-PNV

Atez Atekoari buruzko zenbait informe eskatu ditu Amonarraizek datorren Plenoan sartzeko

Honako gaien inguruan eskatu ditu informeak: zintzilikatzekoak, langileen zeregina, erabiltzaileen ardura eta herritarren eskubideak.

ANDONI Amonarraiz EAJ-PNVko bozeramaileak Kronikara bidalitako prentsa oharrean jakitera eman du, Atez Atekoaren gainean zenbait informe eskatuko dituela eta horiek ostegunean egingo den Plenoan sartzeko nahi dituela. Arrazoia honakoa da: «Atez Atekoa dela-eta, hernaniarrek beren eskubide urraketari dagokienez duten informazio eta babes falta. Eta oinarri hartuta administrazio publikoak herritarren interesen alde egin behar duela, honako eskaera egingo du EAJ-PNVk», azaldu du.

Lau informe egiteko eskaera
Cuatrecasas Gonçalves Pereiraren gabineteari eta zehazki Javier Lusarreta Aramendia abokatuari honako informeak eskatu dizkio Plenoan sartzeko:

- Udalak zintzilikatzekoak jabetza pribatuetan jartzea legala den ala ez, bizilagunen baimenik gabe.
- Udal langileek hondakinak tratatzea legala den ala ez aurretik erabiltzaileen baimenik ez badute (zintzilikatzekoak pertsonalizatuta daude);
- Erabiltzaileen ardura hondakinekiko, behin kalean utzi ondoren.
- Herritarrek jarraitu beharreko pausuak zeintzuk diren, beren eskubideak urratuak izan badira, honako kasuei dagokienez: beren jabetzaren okupazioa; beren hondakinen trataera baimenik gabe; ezarriko zaizkien isunak beraien edukiontzia edo poltsetan behar ez den hondakinen bat azalduz gero, behin kalean utzi ondoren.

Informe horiez gain, Amonarraizek eskatu du informe horiek publiko egiteko herrian gehien irakurtzen diren 4 egunkarietan. ||

❖ ATXILOKETAK

Astelehenean atxilotutako hiru hernaniarrak espetxeratzeko agindu du epaileak

Atxilotuetako bat, Jose Camacho, ospitalean dago. Gainerakoak Soto del Realen espetxeratu dituzte.

ASTELEHENEAN Hernanin eta Seguran lau pertsona atxilotu zituen Guardia Zibilak; horietatik hiru hernaniarrak (Juan Mari Maizkurrena, Josune Balda eta Jesus Camacho). Atzo pasa ziren laurak (Euri Albizu segurarra tartean) epailearen aurretik, inkomunikatuta, eta laurak atxilotzeko agindua eman zuen Ismael Moreno epaileak.

AAMk jakitera eman

zuenez, Camacho ospitalera eraman zuten atzo eta epailea bertara joan zen deklarazioa hartzerako. Camachok, ordea, ez zuen deklaratu. Albizu segurarrak ere ez.

Soto del Realen espetxerata

Fiskalak laurak espetxeratzeko eskaera egin zuen ETARI laguntzea leporatuta, eta epaileak berehalako espetxeratzeko agindu zuen. Soto del

Realen daude hirurak. Camachok ospitalean jarraitzen du. Senideek ez dute oraindik beraien berririk izateko aukerarik izan.

Manifestazio jendetsua

Astelehenean egunero egin bezala, atzo ere manifestazioa egin zen Hernanin. Atxilotuei, beraien familiei eta lagunei elkartasuna adierazi zieten atzo egin zen manifestazio jendetsuan. ||

❖ PSE-EE - PRENTSA DHARRA

«Atez Atekoan beste pauso bat: 'enpresa publikoa'»

PSE-EE alderdiak prentsa ohar bidez azaldu du, Udalak Atez Atekoa gestionatzeko enpresa bat sortu nahi duela eta honen inguruan zalantzak azaldu ditu.

JOSE Ramon Chica PSE-EE alderdiko bozeramaileak prentsa ohar bidez azaldu du, Udala beste pauso bat ematera doala Atez Atekoari dagokionez, «orain hondakin bilketaren gestioaz arduratuko den enpresa bat sortu nahi du eta hernaniarren diruarekin erositako materialak emango zaizkio. Gainera, milioi bat euro gehiago eman beharko zaizkio diru-sarrerara eta aurreikusitako gastuen arteko defizita kubritzeko». Enpresa horren harira zenbait zalantza azaldu ditu.

Langile kopuruari dagokionez, hala azaldu du: «Usurbilen eta Hernanin bilketarako 14 pertsona jartzea proposatzen da. Usurbilen egun, 6 pertsona aritzen badira, Hernanin bost aldiz biztanle gehiago baditu, eta 8 pertsona gehiago bakarrik hartu nahi badira, hori kontuan izanda, datuek ez diete beharrei erantzuten».

Azaldu duenez, enpresa

publiko bat sortu nahi dute Usurbilekin eta Oiartzunekin batera eta gaineratu du proposatutako enpresa publiko horren aurrekontuetan ez direla inondik ageri langileen oporrak, atsedanak,

«'Enpresa publiko' horrek izango duen kostuaz gain, Udalak dagoeneko 700.000 euroko gastua du materialagatik».

bajak... Dena dela, dio, «bixiena» honakoa dela: «nola aukeratuko dira enpresako langileak? Denek izango dute aukera bera? Ziurrenik "ingurumenaren alde" merituak egin dituztenek izango dute aukera». Eta gaineratu du: «jakin dezatela hernaniarrek sortuko duten "enpresa publiko" horrek izango duen kostuaz gain, Udalak dagoeneko 700.000 euroko gastua duela materialagatik».

«Isunak eta kontrola»

Atez Atekoa orokorrean hartuta, honakoa azaldu du Chicak: «maiatzaren 9tik aurrera inposatu egingo digute eta birziklatzera behartuko gaituzte isunen bidez. Gainera, izendatzen den langileak "inspektore" papera hartuko du eta aukera izango du gure basura kontrolatzeko eta herritarrok intimitaterako dugun eskubidea urratzeko».

«Gainera ez digute esaten zer egingo dugun birziklatu ezin diren hondakinenkin».

Sinadura bilketari babesa

Atez Atekoa martxan jarri aurretik herrian galdeketa egiteko eskatuz, egiten ari diren firma bilketari erreferentzia eginda, «dudarik gabe» babesa ematen diotela azaldu du Udalaren «burugabekeria» horren kontra. ||

🗣️ **Jasota Bezala**

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Atzerritar baten iritzia

Ni Italiakoa naiz eta hiru urte baino gutxiago daramatzat Hernanin.

Erabaki dut zertxobait idaztea gauza gehiegi irakurri ditudalako, eta nire ustez onuragarria izan zitekeelako atez ateko bilketan aritu den baten iritzia.

Nire herriak Monfalcone izena du eta han atez ateko zabor-bilketa aspalditik egiten da; egia esan, han bizi nintzen garaian ez zidan arazo handirik ematen, funtsean ohitura hartzea da-eta kontua.

Hasieran, noski, jendea kezkatuta zebilen, kontu berri bat zela-eta, baina denborarekin eta elkarrizketen bidez gauzak konpondu ziren.

Horrez gain, bilketa horrek garapen iraunkorra bermatzen du, hondakin berziklatuei bizitza berri bat ematen baitie. Orduan, esango nuke aukera arduratsu bat dela, geure etorkizunaruntz begira.

«Hernani handi xamarra dela» esaten dutenei esango nieke Monfalconek ia 35.000 biztanle dituela, eta hainbat Italiako herri handiagoetan bilketa honek funtzionatzen duela.

«Hau zikinkeria bat izango dela» esaten dutenei esango nieke ontziak ez direla egun osoan zehar zintzilikatuko; hemen, behintzat, bilketa gauzez egingo da; Monfalconen, ordea, goizez egiten da.

«Guk beti guztia egin behar dugula» esaten dutenei galdera batekin erantzuniko nieke: guk geuk guretzako egiten ez badugu, zeintzuk?

Azken finean pena handia ematen dit politikak eragindako desitxuratzeak. Bitartean denok fronte bakar bat egin beharko genuke, geure etorkizunarako irtenbide garrantzitsu bat hartzeko zorian baikaudete.

Inori ez zaizkio gustatzen aldaketak, baina batzuetan beharrezkoak dira, geuretzako eta etorriko direnentzako.

Adierazi dudan guztiak ez du esan nahi ados nagoela Udalak onartutako isunen sistemarekin; bai horixe Monfalconen ez da horrelakorik existitzen.

Kaio Medelin Pellicani

❖ LANGILE IKASTOLA

Manifestaziorako dei egin diote komunitate osoari

Bihar, 13:00etan abiatuko da Plaza Berritik. Gaur, berriz, 24 orduko itxialdia hasiko dute.

LANGILE Ikastolako organo gorenak deituta, itxialdia eta manifestazioa egingo dituzte asteburuan, «Hezkuntza sailak inposatu nahi duen fusioa salatzeke». Manifestazioan parte hartzeko deia langile ikastolako komunitate osoari luzatu diote, alegia: «urte hauetan langile ikastola sortu, sendotu eta indartu duten guztiei; atzoko, gaurko zein biharko guraso, langile, ikasle eta irakasleei; eta, noski, proiektu hau amestu, maitatu eta sinesten duten guz-

tiei», azaldu dute. Manifestazioa bihar izango da, 13:00etan, Plaza Berritik abiatuta. Lema honakoa izango da: *gure seme-alabak 2-16 langile ikastolan*.

Gaur 24 orduko itxialdia Laubidietan

Manifestazioa itxialdia bukatzean izango da; izan ere, gaur eguerdiko 13:00etatik aurrera, 24 orduko itxialdia egingo dute. Ikastolaren egoitza nagusia, hau da, Laubidietan izango da. ||

Itxialdia eta manifestazioa izango dira, «Hezkuntza sailak inposatu nahi duen fusioa salatzeke».

❖ EGUNKARIA EGUNA

Musika, sagardoa eta bertsolariak, besteak beste

Egunkaria itxi zutela 7 urte betetzen dira gaur eta hori dela eta, Egunkaria Eguna izango da Hernanin.

ZAZPI urte bete dira gaur, Guardia Zibilak Egunkaria itxi zuenetik, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, eta hori gogoratzeko, Egunkaria Eguna antolatu dute gaur Hernanin. Goizeko 11:30etatik aurrera, ekitaldi ugari izango dira Plaza Berrin. Besteak beste izango dira: musika, sagardo dastaketa eta bertsolariak. Eurria egingo balu, Atsegindegina izango litzateke.

Giroa pixka bat berotu ondoren, eguerdiko 13:00ak aldera, Martxelo Otamendik hartuko du hitza.

Horrez gain, ekitaldi osoan, Egunkariaren aldeko kamixeta eta bonoak salduko dira eta hau-

rrentzako margotzeko gune bat ere egongo da. ||

► Egitaraua - gaur

11:30: Dultzaineroak eta Kantu Jirakoak Kaxkoan barrena ibiliko dira.

12:15: Sagardo dastaketa eta pintxoak.

Batera, txalaparta, trikitilariak, dantzariak, bertsolariak eta Kantu Jirakoak joango dira oholtzara igotzen.

13:00ak aldera, tartean, Martxelo Otamendik hartuko du hitza.

Ekitaldi osoan, Egunkariaren aldeko kamixeta eta bonoak salduko dira eta haurrentzako margotzeko gune bat ere egongo da.

❖ SENIDEAK

Espetxeetako zuzendariei faxak bidaltzeko mahaia

Hernaniko preso politikoen senideek azaldu dutenez, otsailean kanpaina burutzen ari dira, «salatzeko aurrez aurrekoak egingo jasan behar ditugun umilazio eta tratu». Horretarako, larunbatero bezala, gaur ere mahaia jarriko dute eta aukera izango da espetxeetako eta espetxe instituzioetako zuzendariei faxak bidaltzeko. Bidalketa masiboa izatea nahi dute eta herritarrei dei egin diete ahalik eta idatzi gehien betetzeko, bakoitzak nahi adina bidali baititzake. Mahaia Kixkalen parean egongo da, 12:00etatik 14:00etara. ||

❖ CCOO

Gaur Bilbora joateko deia

Espainiako Gobernuak jubilazioaren inguruan hartu nahi duen erabakia dela eta (65etik 67ra atzeratzea), CCOO sindikatuak mobilizazioak antolatu ditu gaurko. Hernaniko ordezkariak Bilbora joateko deia egin dute. Hitzordua 11:30etan da, Gran Vian. ||

❖ KARABELEKO PARKINA

Zabalik dago dagoeneko

Karabelen aparkalekua egin dute Txantxillan zegoenaren ordeiz eta Udaletik jakinarazi dutenez, atzotik zabalik dago. ||

❖ KONZERTUA

Musika Bandak antolatuta, kontzertu berezia gaur

Hernaniko Musika Eskolaren 25. urteurrena dela

eta, Musika Bandak kontzertu berezia antolatu du gaurko. Bertan parte hartuko dute: Musika Bandak, Musika Eskolako txistulari taldeak, Hernasax saxofoi taldeak (20 bat lagun) eta lau gonbidatuk, eta Musika Eskolako ikasleek. Guztiak Zipri Otxandorena eta Roberto Pachecoren zuzendaritzapean izango dira. 20:00etan, Milagrosan. ||



❖ UR LUDDTEKA

Bihar kiroldegian

Bihar ur lodoteka izango da Hernaniko igerilekuan, goizeko 10:00etatik 12:00etara. Jolastera eta primeran pasatzera gerturatzeko gonbitea luzatu dute bertatik. ||

❖ SANTA BARBARA ELKARTEA

Mus txapelketan izena emateko azken eguna bihar

Santa Barbara elkarteko bazkideentzat mus txapelketa ari dira antolatzen eta bihar bukatuko da izena emateko epea. ||

❖ PEÑA OTAÑO

Urteko bilera bihar

Peña Otaño elkarteko bazkideek urteko bilera izango dute bihar, elkartean. Bi deialdi izango dira: 10:00etan eta 10:30etan. Eta aztertuko dituzten gaiak honakoak izango dira: aurreko akta irakurri eta onartu; bazkideen asistentzia, altak eta bajak; 2009ko balantze ekonomikoa; eta bestelakoak, eskaerak eta galderak. ||

❖ GOIZ EGUZKI

Karta txapelketetan izena emateko aukera

Goiz Eguzkin udaberriko karta txapelketak hasi dira prestatzen eta jakinarazi dutenez, izena emateko epea irekita dago dagoeneko. Martxoaren 3an izango da azken eguna; 9an hasiko dira partidak. Modalitate ezberdinetako txapelketak izango dira, hala nola, mus, tute, eskoba eta punttoa. Izena bulegoan eman behar da eta bazkide kameta eramatea beharrezkoa da. ||

❖ TXANTXANGORRI ELKARTEA

Oilagorrek ehizatzeo baimenak itzultzeko deia

Txantxangorri elkarteak jakinarazi du, Aiako Harrian oilagorrek ehizatzeo baimenak jaso zituztenek, baimen horiek itzuli egin behar dituztela elkartean bertan, datorren denboraldirako baimenak lortzeko. Horrez gain, gogorarazi du otsaileko lehenengo hamabostaldian oilagorrek ehizatzeo baimena lortu zuten ehizatariak ere, baimen horiek itzuli egin behar dituztela Gipuzkoako ehiza federazioan edota Txantxangorriin. ||

AKELENEA
Erretetgia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo eta fina

Eguneko menuak
Kuadrilako bazkariak
Karta

Egunero zabalik

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Vanesa eta Miguelo
Harategia eta aurrez egindako janaria

Larunbata eta igandea goizez irekita
Egin zure enkargua !!
Aukera zabala

ASTEBURU HONETAN :

OILASKOA patatak sagardo bot. 7,95€	BASURDEA saltsan 8,50€	SAIHESKIA patatak sagardo bot. 8,95€
--	--	---

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32

Etxebizitzaren arazoari irtenbide bat gehiago bilatu nahian, Udaletxeak 2008an lokal komertzialak etxebizitza bihurtzea onartu zuen. Orduetik hainbat dira

pausu hau eman duten herritarrak eta lokal horietan bizitzen hasi direnak, hori bai, beti ere, Udaletxeak exijitzen dituen tramite guztiak pasa ondoren.

LOKAL KOMERTZIALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEA

Lokal komertzial hutsak etxebizitzarako alternatiba

GIPUZKOAKO hainbat herritan bezala, Hernanin hirugarren sektoreko erabilerarako aurreikusita zeuden hainbat lokalen aprobetxamendu eskasak, eta hauek bestelako funtzioetara bideratzea ezinbestekotzat ikusi zen. Lurralde osoan bezala etxebizitzaren arazoari bestelako irtenbidea emateko aukera paregabea izan zitekeen eta horretarako 2008an lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko ordenantza onartu zen plenoan.

Marian Beitialarrangoitia alkateak adierazitakoaren arabera aurreko udal korporazioa hasi zen arlo honetan lanean, baina ez zuen ezer konkreturik lortu. Konkrezio eza honen ondorioz herrian egoera berezi bat eman zen, non zenbait jabe lokalekin espekulatu zen hasi ziren edota bestelako etxebizitza lortzeko errekurtsorik gabeko pertsonak lokalak egokitzen hasi ziren etorkizunean etorri zitekeen araudi baten esperoan. Horregatik, bere esanetan, gobernu talde hau sartu zenean lehentasuna eman zitzaion gai honi araudi berriak egoera berezi hauekin buka zezan.

Ordenantza honen bidez sortu diren etxebizitza guztiak Udal Etxebizitza Tasatuen erregimenera atxikiak gelditu dira, hau da, babes publikoko etxebizitzaren estatusa dute. Honen bidez gehienezko prezio bat ezarria daukate espekulazio egoerei muga bat jartzeko intentzioaz. Hau zen ordenantzaren helburuetako bat, eraikita dauden eta erabilerarik ez duten espazio horiei aprobetxamendua bilatzeaz aparte.

Gaur egunean, hoguei bat lokal daude Hernanin etxebizitza bihurtzeko eskubidea eskuratu dutenak. Gehienak oraindik etxebizitza izatera egokitzeko obretan ari dira baina gutxi batzuetan jendea bertan bizi da dagoeneko. Udaletxea halere, konziente da badaudela ordenantza onartu aurretik egokitu ziren lokalak, hau da, ilegalki etxebizitza bezala egokitu ziren lokalak. Udaletxearen arabera, tranpa egin dutenak ordaina jaso beharko dute gauzak gaizki egiteagatik, baina araudia bete ezker, ez zaie galaraziko beraien etxebizitza erregulartzatzen.

Udalarentzat araudi honek zer



Etxebizitza bihurtu daitekeen Hernaniko lokal huts bat

nolako eragina izan duen Hernanin ikusi ahal izateko goiz da oraindik. Batetik, krisiak merkatu inbiliariorioan izan duen inpaktuak merkatu hau asko moteltzea ekarri duelako. Beste alde batetik, araudiaren arabera lokalak egokitu ahal izateko, bere jarduera komertziala eten zutenetik lau urte igaro behar direlako eta lokal askok oraindik ez dutelako baldintza hori betetzen.

Lokal komertzial bati etxebizitza erabilera eman aurretik ordenantzak zenbait baldintza jartzen ditu. Hernaniko zenbait eremuetan egoki-

tze hau ezin da egin, gehien bat Alde Zaharrea eta honen inguruko auzoetan, (ikusi ondoko koadroa). Helburua, Alde Zaharrea eta inguruko zabalgunean dauden merkataritza eta hirugarren sektoreko jarduerak babestea da.

Bestalde, lehen aipatutako lau urteko eten komertzialaren baldintza ere garrantzitsua da. Honen bidez, erdigunean bezala, auzoetako bizitza komertziala babestu nahi da, udaletxeak inolaz ere ez duelako nahi komertzioak auzoetatik desagertzea etxebizitzetara tokia egiteko. Bestelako

Hernaniko eremu hauetan, lokal komertzialak ezin dira etxebizitza bihurtu:

- Agustindarren plaza.
- Antziola auzoa (1etik 30era)
- Biteri kalea. • Elkano kalea.
- Felipe Sagarna, Zapa, kalea.
- Gudarien plaza.
- Izpizua kalea.
- Kale Nagusia.
- Kardaberaz kalea.
- Karobieta auzoa (1, 1A, 2).
- Latsunbe auzoa.
- Lizeaga kalea.
- Marieluts auzoa.
- Montebideo kalea.
- Nafar kalea.
- Oarso kalea (2, 4 eta 6 sarrera Elkano kalera ematen dutenak).
- Orkolaga kalea 2, 2A, 4, 15*, 17*, 19* eta 20* (* sarrera Latsunbe aldera dutenak).
- Perkaiztegi kalea.
- Txirrita kalea.
- Urbieta kalea.
- Latsunbeberri auzoa (1, 11, 12, 19, 20, 27,28, 35, 36, 37, 38).

baldintzak, bizigarritasun baldintzei edota sarbideen eta baldintza estetikoiei egiten diete erreferentzia.

Beraz, epe luzean aztertu beharko da araudi hau etxebizitzaren arazoentzako irtenbideetako bat izango den ala ez. Udalaren iritziz irtenbide bat baino alternatiba bat izango da etorkizunari begira. Beraien ustez, garrantzitsuen da, etxebizitza propio bat edukitzeko aukerak zabaltzea, eta araudi honen bidez aukera horiek zabaltzeaz gain, lokal batera bizitzera joan nahi duenak argi dauka zer nolako pausuak eman behar dituen lokal hori egokitzeko. ■

IWAN GOMEZ - Lokala etxebizitza egiten ari den hernaniarra

«Lokalak etxebizitza bihurtzeko aukera, irtenbidea baino gehiago, laguntza haundia izan da»

LOKAL komertzial batean etxebizitza egokitu dutenetako bat da Iwan Gomez. Hernanin, gero eta gehiago dira egokitze hauek egitera animatzen direnak, etxebizitzaren prezio altuen eraginez. 2008an araudi berria onartu zenetik 20 lokal inguruk lortu dute etxebizitza erabilera baimena, eta horien artean Iwanek bere esperientzia kontatu digu.

Zenbat denbora falta zaizu zure etxe berrira bizitzera joateko?

Hiru hilabete asko jota. Arazo batzuk izan ziren eta gutxi gorabehera obrari hiru hilabete falta zaizkio. Edo gutxienez hori espero dut, ze epe horretarako geratzen zait obra baimena. Kontua da baimena ematen dizutenetik urtebete duzula bertan bizitzeko eta erabilera baimena aldatzeko; eta nik, luzapena eskatu behar izan nuen. Baina azkenean, bai, hiru hilabete, San Joanetako han bizitzeko egon nahiko nuke asko jota eta lehenago bada hobeto.

Prozesua oso luzea da?

Prozesua luzea baino luzeagoa egiten da. Gainera ordenantzaren kontuarekin luzeago oraindik, zeren tartean atzerapen asko egon dira, aurreproiektu asko, emendakinak, gobernu aldaketa... eta azkenean oso luze joan da. 2008an onartu zen araudia baina nik baimena lehengo urteko uztailean lortu nuen, eta udara eta gremio batzuekin arazoak tarteko, luzatzen ari da. Baina luzeago egin zitzaidan niri ordenantza onartu zen arteko denbora, nik lokala orain dela hiru urte



Iwan Gomez oraindik obretan dagoen bere etxebizitza izango denaren atarian

erosi nuelako eta araudia onartu zen arte denbora asko pasa zelako.

Merkeago ateratzen da lokal bat etxebizitza izatera moldatzea, zuzenean etxebizitza bat erostea baino?

Printzipioz bai. Egia da azken urtean edo urte eta erdian etxebizitzaren kontua asko jaitsi dela eta ni kontu honekin hasi nintzenean baino diferentzia txikiagoa dela. Hala ere, nire lokalak dituen metroak dituen pisuak asko balio du oraindik. Nik hasiera batean kalkulatu nuen 60 mila edo 80 mila euro aurreztu zitezkeela lokalarekin, baina orain prezioak jaitsi diren honetan, egia esanda, ez dakit zenbat aurreztuko dudun.

Zer abantaila edo desabantaila ditu lokal batera bizitzera joateak?

Egia esan, oraindik ez dakit. Agian

aurkitzen diodan abantailarik handiena nere etxebizitza propioa izatea da. Eta gero pisu batekin alderatuta egon daitezkeen desabantailak, agian, altuera kontuak izan daitezke edo kalean bertan izatea etxea. Baina egia esan ez dakit, oraindik ez nagoenez bertan bizitzen...

Ezagutzen duzu norbait jadanik lokal batean bizitzen ari dena?

Lokal batean legez bizi dena ez, baina ordenantza onartu aurretik lokal batean bizi zenik ezagutzen dut, hau da, baimenik ez zuena. Beste herri batzuetan lokaletan bizi direnak ezagutzen ditut, eta gustura daudela esango nuke. Gutxienez bizitzeko toki bat dute.

Zure betirako etxebizitza izango dela uste duzu edo irtenbide probisional bat da?

Printzipioz uste dut betirako izango dela baina auskalo. Suposatzen dut bertan bizitzeko gustura egongo naizela eta printzipioz nire etxea izango da. Hortik mugitzeko intentziorik ez dut, puska batean behintzat.

Etxebizitzaren arazoarentzat irtenbideetako bat izan daitekeela uste duzu?

Nire kasuan laguntza bat izan da. Baina lokal bat etxebizitza bihurtzeko ere diru asko suposatzen du. Haste-ko, lokala erosi behar da. Gero Udalaren kargak, arkitektoa, teknikariak, baimenak eta abar ordaindu behar dira... diru asko xahutzen duzu adreilu bat bera ere jarri aurretik. Eta pentsatzen duzu, «oraindik obra guztia falta da!». Egia esanda, diru asko joaten da, baina esaten dutenez, inguruko herrietan baino merkeago ateratzen da Hernanin. ||

HERNANIKO KRONIKAK PRAKTIKETARAKO PERTSONA BAT BEHAR DU

Bidali zure Curriculum Vitae-a,
otsailaren 22ra arte

- kronika@kronika.net
- DOBERA EUSKARA ELKARTEA
LARRAMENDI 11 BEHEA
20.120 HERNANI

dobEra

Hernanika

Egin beharrak:

- 10. urteurrena prestatzen eta aurrera eramateko laguntza
- Lan administratibo eta Marketing arloan

Eskatzen da:

- Iniziatiba edukitzea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna
- Euskera menperatzea

Baloratuko da:

- Lehenago horrelako lanetan aritua izatea
- Jende aurrean esperientzia izatea

Eskainiko zaio:

- Praktiketako kontratua
- Praktikat ordainduak izango dira.



ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

Hernaniko Udala

IRAGARKIA:

Hernaniko udalak Ur eta Argi Buruaren lanpoltsa bat osatzeko oinarriak onartu ditu.

Interesdunek eskabidea aurkeztu ahal izango dute **2010eko otsailaren 24** arte, eskabide normalizatua aurkeztuz udal Erregistro Orokorrean.

Informazio gehiago: udaletxean edo udal web orrian:
www.hernani.net.

Hernani, 2010eko otsailaren 19a.
Marian Beitialarrangoitia Lizarralde
Alkatea

◆ JUDO

Infantil mailako Gipuzkoako Judo Txapelketa gaur kiroldegian

Arratsaldeko 16:00etan emango zaio hasiera infantil mailako Gipuzkoako Judo Txapelketari kiroldegian. Alebin mailakoek, sailkapen fasea jokatuko dute.

GIPUZKOA osoko 100 judoka inguruk parte hartuko dute gaur arratsaldean Hernaniko kiroldegian ospatuko den Gipuzkoako Judo Txapelketan. Arratsaldeko 16:00etan emango zaio hasiera infantil txapelketari, eta hori amaitzean alebinak izango dira. Alebinak txartela lortu nahiko dute, maiatzean ospatuko den alebin mailako Gipuzkoako txapelketarako.

Partehartzaileak kategoria askotan banatuak daude, guztiak pisuaren arabera. Horretarako, txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago denek basculatik pasa beharko dute dagokien kategorian sailkatzeko. Gero borrokaldiak hasiko dira.

Hernanitik 5 judoka

Hernanitik 5 judoka arituko dira gaurkoan infantilen txapelketan. Neskek dominak lortzeko aukerak badituzte, eta mutilek lan zailagoa izango dute, Hernaniko Judo El-



Bi judoka 2009ko Gipuzkoako Txapelketa borrokaldi batean

kartetik esan digutenez. Dirudenez, mutilen kategorietan partehartzaile ugari daude eta maila nahiko altua dago.

Alebinetan sailkatze fasea

Alebin mailan Gipuzkoako Txapelketarako sailkapen fasea jokatuko dute infantilek

Hernanitik 5 judoka arituko dira infantil mailako Gipuzkoako Txapelketan. Alebinen sailkatze fasean berriz, 17 izango dira lehiatuko diren hernaniarrak.

bukatu bezain laister. Hernaniko Judo elkartetik 17 judokak parte hartuko dute eta dirudenez badauzkate sailkatzeko aukerak. Maiatzean ospatuko da txapelketa hori eta Hernaniko kiroldegian egingo da baita ere. Sailkatze fase honetan judoka

hernaniarrek Oarsoaldeako eta Donostialdeako judokak izango dituzte aurrean.


2009an alebin mailako txapelketa Hernanin jokatu zen eta 240 judokak parte hartu zuten. Orduko hartan hiru hernaniarrek lortu zuten domina. ||

◆ IGERIKETA

Mañel Aizpuruak eta Olatz Altunak Espainiako txapelketa jokatuko dute, Baldulia taldearekin

Hernaniko bi igerilari izango dira asteburuan, Madrilen, Espainiako Komunitate Autonomoen arteko txapelketan. Euskadiren izenean, Baldulia taldea Madrilen izango da, eta bertan izango dira Mañel Aizpuruak eta Olatz Altuna hernaniarrak. Olatz Altunak 50 metroan eta 100 metroan neurtuko ditu indarrak eta Mañel Aizpuruak 200 metroan eta 400 metroan. Izarrik onenak Madrilen izango dira asteburu honetan, senior eta junior mailetan.

Frogak atzo hasi zituzten, eta gaur eta bihar ere izango dira. Mañel Aizpuruak, datorren astera arte bertan jarraitzeko aukera izango du, eta horrela bertako instalazioetan entrenatzeko aprobetxatuko du. Olatz Altunak egunero entrenatzen duen instalazioetan, hain zuzen, Madrilen bertan egiten ari baita bere ikasketak. ||



◆ XAKEA

Haurrentzako xake txapelketa bihar, Hernaniko kiroldegian

Hernaniko xakelari txikienek aukera izango dute datozen hiru igandean, elkarren kontra indarrak neurtzeko, xake taularen gainean. Esan bezala, hiru jardunaldi jokatuko dituzte, eta bihar izango da lehendabizikoa, 10:30etatik aurrera. Bi kategorietan banatu dute txapelketa: 12 urtez azpikoak batetik, eta 12-16 urtekoentzat, bestetik. ||

Hernaniko bi taldeek etxean jokatuko dute gaur

Etxean jokatuko dituzte partidak, Hernaniko bi xake taldeek. Gaur, 16:00etatik aurrera. Hernani Ak aurrean izango ditu Gros C taldeko xakelariak, eta Hernani Bk berriz, Astigarragako Mundarro B taldeko xakelariak izango ditu aurrean. Hernani B taldeak gaur bukatuko du lehendabiziko fasea. ||

◆ ERRUGBIA

Finalaren neurriko partidua bihar Landaren, Oviedoren kontra

Lau partiduren faltan, lau final gelditzen zaizkio Hernaniri, lider jarraitzeko. Oviedoren kontra du bihar, Landaren, 12:00etan.

FINALAREN neurrikoak izango dira, hemendik aurrera Hernanik ligan jokatu duen lau partidua. Hernani lider dioa Ohorezko B mailan, eta postu horri eusteko behar beharrezkoa du datozen partidua irabaztea, hurrengo sailkatuak nahikoa gertu baitaude.

Oviedo taldea da Hernanik atzean utzi dezakeen lehendabizikoa, bihar irabazten badu. Oviedo sailkapenean laugarren dioa, baina oraindik badu aukeraren bat iguera fasean sartzeko. Ez da partidua erraza biharkoa. Oviedok kalitate oso oneko jokalariek ditu (2 argentinarrak eta 2 Zeelanda Berrikoak), eta haiek zaintzeak berebiziko garrantzia izango du.



Partidu garrantzitsuak dituzte Hernaniko taldeek asteburuan.

Joan den asteko partidua eta gero, ilusioz hernaniarrak

Joan den astean ez zen ligarik izan, eta Hernanik Urrezko Kopa jokatu zuen Gernikaren kontra, Ohorezko A mailako talde baten kontra, alegia. Itxura oso ona eman zuten hernaniarrak, eta biharko ilusionatuak daude. Baja gehienak osatuta izatea espero dute biharko. 12:00etan Landaren.

Jubenilak eta kadeteak Euskadiko finalerdietan

Bi partidua garrantzitsu jokatu dituzte gaur Hernaniko errugbilari gazteek, Euskadiko finalerdietan baitira biak ere. Joanekeo partidua dituzte gaur, etxetik kanpora: jubenilek Zarautzen kontra, eta kadeteek Independienteren kontra. ||

SAILKAPENA

1-Hernani C.R.E.	9	40
2-F.C. Barcelona	7	36
3-B.U.C. de Barcelona	6	32
4-Oviedo R.C.	7	31
5-Universid Vigo	3	16
6-Getxo R.T.	3	14
7-Durango R.T.	2	13
8-Eibar R.T.	2	11

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				XAKEA			
E. Ohorezko Maila	Hernani-Real Union	Zubipen	Gaur 16:30	Gip 1.maila	Hernani A-Gros C	Hernanin	Gaur 16:00
L. Erregi. Igo. F.	Trintxerpe-Hernani	Zubipen	Bihar 12:30	Gip 2.maila	Hernani B-Mundarro B	Hernanin	Gaur 16:00
Jubenila. L. Nazio.	Ariznabarra-Hernani	Ariznabarran	Gaur 16:00	ERRUGBIA			
Jubenila. 1. maila.	Hernani-Trintxerpe	Zubipen	Bihar 12:30	Senior	Hernani-Oviedo	Landaren	Bihar 12:00
Jubenila. 1. maila.	Goierrri-H.Real Tanger	Alustiza	Bihar 16:30	Jubenilak finaler.	Zarautz-Hernani	Astin	Gaur 16:30
Jubenila. 1.maila.	Hernani-Intxaurrondo	Zubipen	Gaur 18:30	Kadeteak finaler.	Independiente-Hernani	Albericia	Gaur 13:00
Kadeteak. O. maila	Hernani-Amaikak bat	Zubipen	Gaur 12:15	Infantilak	Araba torneo	Lakuan	Bihar 10:30
Kadeteak. 1. maila	Luberri-Hernani	Berion	Bihar 10:30	Alebinak	Araba torneo	Lakuan	Bihar 10:30
Kadeteak F-11	Hernani-Luberri	Zubipen	Bihar 16:30	BOLEIBOLA			
Infantilak	Real Union-Hernani	Galen	Gaur 11:45	Seniorkak neskek	EHU Hernani-Aixerrota	Hernanin	Bihar 11:00
Infantil Txiki	Lagun Onak-Hernani	Garmendipen	Gaur 15:00	SASKIBALDIA			
ARETO FUTBOLA				Seniorkak	Teklan HKE-Kevian Sport	Hernanin	Gaur 18:00
3. maila Igo. F.	Aidur-Berastegi	Kirolegian	Gaur 16:30	Jubenilak	Mundarro-Hernani	Astigarraga	Gaur 16:00
				Kadeteak	Beasain-Hernani	Beasain	Gaur 10:30

◆ FUTBOLA

Hernanik gaur jokatu du Real Union taldearen kontra, Zubipen

Erregionalen ohorezko mailan, Hernanik partidua gogorra du gaur, beti zaila izaten den Real Union taldearen kontra. Hernaniarrek azken partiduetan ez dituzte oso emaitza onak izan, eta gaur dute, bolada horri bukaera emateko aukera. Zubipen, 16:30etan. ||

◆ SASKIBALDIA

Kevian Sport taldea izango du aurrean gaur Teklan Hernanik

Teklan Hernani taldeak gaur jokatu du Hernaniko kiroldegian, liga-kopartidua. Aurrean Teklan Sport izango du, 18:00etatik aurrera. ||

◆ PELOTA - BERRIA TXAPELKETA

Huarte-Markina, Berria txapelketako final zortzirenak gaur Hernanin

Berria txapelketa izango da gaur Hernanin, eta beste behin hernaniko pelotazaleek aukera izango dute, Euskal Herriko pelotari amateur onenak ikusteko. Hernaniko kiroldegian ariko dira, txapelketako final zortzirenetan, Huarte eta Markina taldeak. Hiru partidua jokatu dituzte, kadete, jubencil eta seniorretan. 16:30etatik aurrera. ||

◆ BOLA

Bikotekako tiraldia bihar, Gabirian

Bikotekako txapelketa jokatu ari dira Hernaniko bolariak, eta bihar laugarren tiraldia izango dute Gabirian. Joan den astean, Urnietan, Legazpiko bikoteak irabazi zuen, 261 brila botata. Hernaniarretan onenak Miguel Burugain eta Jose Ugalde izan ziren, 13garren, 237 brila botata. ||

◆ BOLEIBOLA

EHU Hernani-Aixerrota bihar

Hernaniko nesken taldeak Aixerrota taldea izango du aurkari, bihar, goizeko 11:00etan, Hernaniko kiroldegian. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ESKERTZA

Karmele Guruzeaga Zubillaga

Orain egun gutxi hil zen
- Goian bego -



Karmeleren familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zireten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin 2010eko otsailaren 20an

FUNERARIA ORBEGOZO

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com




- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● Eguz: **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauz**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Goizean trumoa eta euri jasak izango dira. Kazkabarra egin dezake. Arratsaldean atertu egingo du eta gozatu egingo du. Min.4° / Max.12°
BIHAR Haize zakarra ibiliko da bihar, 80-100 km/h indarrarekin. Zaparradak eta atertuneak nahasian. Temperaturak dezente igoko dira. Min.6° / Max.14° (euskalmet)



ATEZ ATEKOA - BIDEO LABUR LEHIAKETA

Bat, bi, hiru... grabatzen!

Gaztetxoentzat bideo labur lehiaketa antolatu du Udalak, Atez Ateko zabor bilketari buruzkoa. Martxoaren 31ra arte aurkeztu daitezke bideoak.

HERNANIKO Udalak bideo labur lehiaketa antolatu du, 8 eta 16 urte bitarteko gazteentzako, eta Atez Ateko zabor bilketari buruzkoa.

Hondakinak nahastuta mina hartzen dugu da bideo laburrak egiteko gaia. Helburua, berriz, gazteek gaiaren inguruan esaten dutena entzutea da. Izaskun Txintxurretak hala azaldu du Hernaniko Kronikara bidalitako prentsa oharrean: «Pentsatzen dutena, bideo batean bildu eta hura zabaltzen lagundu nahi diegu. Haien mezua entzutea garrantzitsua da guretzat».

Bideoak aurkezteko epea martxoaren 31ra arte dago.

«Gazteek ezagutzen dute landu beharreko gaia»

Hernaniko ingurumen sailak erabaki du lehiaketako gaia zein izango den, *Hondakinak nahastuta min hartzen dugu*. Txintxurretak adierazi duenez, «haurrek ezagutzen dute

Lehiaketan parte hartzeko, 8-16 urte behar dira. Bi kategoriatan emango dira sariak: 8-12 urtekoentzat eta 13-16 urtekoentzat

Taldeka egin behar dira bideoak: gutxienez 3 lagun, eta gehienez 5; Hernanikoak edo Hernanin ikasten dutenak.

Aste Santu ondorenean emango jakinaraziko dira irabazleak zein diren

bideoan landu beharreko gaia. Badakite hondakinak nahastuta ezin direla birziklatu, konpostatu edo berrerabili. Hondakinak ez nahastea da gakoa».

Erabakia hartzeko, kontuan hartuko da gaia egoki

tratatzea %25; eta gainerakoak %75: bideoaren egokitasuna, erabilitako teknologia, antzezlanaren bikaintasuna, eta Atez Atekoa aipatzea.

Irabazleentzat baleak, 300 eta 500 eurokoak

Hernaniko gazteek edo Hernanin ikasten dutenek egin behar dituzte bideoak. 8 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendua dago lehiaketa, eta gainera, taldeka egin behar dira lanak: gutxienez 3 lagun; gehienez 5.

Bi mailatan banatuko da lehiaketa, 8-12 urtekoak, eta 13-16koak. Erabakia jakinaraziko dute Aste Santu ondorenean, eta irabazleak 500 eta 300 euroko baleak izango dituzte, Hernaniko kirol dendetan erabiltzeko.

Informazio gehiago nahi duenak, eta parte hartzeko fitxak telefonoz edo web orriaren bitartez lortu daitezke:

-900 840 090

-www.hernaniatezate.net. ||

Atez ateko zalantzak argitzen

Pilak atez ate jasoko dira?

Ez. Pila-saltokietan jasoko dira.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net

hernani

IRAGARKI MERKEAK

Erreferentzidun emakumeak etxeko lanak egingo lituzke (orduka edo interina). Deitu: 681 077 353

Frantsesa ikasi nahi dut eta irakasle partikular baten bila nabil. Deitu: 943 33 30 65.

Sukaldatze eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut (ahal bada 30 urtekin gora).

Deitu: 669 466 679

Pisua salgai Sagastialden. 2 logela, sukaldea, komuna eta saloia, amueblatua. (27.000.000 pzta).

Deitu: 637 959 992 / 630 118 545.

Garajea alokairuan Akarregin (autokarabana batentzako). Deitu: 609 767 673

Pisua salgai Karabelen. 60m2, 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua.

Deitu: 627 403 119.

Pianoa salgai. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoak. Ongi zaindua. 2.500 euro.

Deitu: 629 763 041.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai...

Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1.

sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebra- la, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Zure arazo eta blokeo pertsonalekin lagunduko zaitut. Bide hauek erabiliz: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach... (Alicia C.C.). Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

IRUBIDE JATETXEA

Enkarguzko janak
Gordetako jantokia
Eguneko menua
Asteburuko menua
Karta

IRUBIDE Jatetxea - Epele auzoa 7 - Hernani - ☎ 943 552 480

ITXASPE

Arrendegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobi.: 653 74 10 97
20120 Hernani

JOMER

Kale Nagusia, 7
☎ 55 00 32
HERNANI